

Pasaian, Donibanen eta Antxon badute jada hondakinak biltzeko sistema propioa; barruti bakoitzak bere ezaugarrietara egokitutakoa.

San Pedrok ere hondakinak biltzeko sistema berria izango du, berea eta propioa. Udalak herritarrei egingo dien proposamenaren zertzelada nagusiak ikusiko dituzue eskuorri honetan.

Udalak sistema berria ezarri duen barrutietan, ia egun batetik bestera, birziklatze kopurua %32tik ia %85era igarotzea ekarri du.

Erraza da; garbia da; ez izan beldurrik, San Pedron ere lortuko dugu!

### SAN PEDRORA EGOKITUTAKO PROPOSAMENAREN ZENBAIT EZAUGARRI:

Bilketa gauzez egingo da trafiko arazoak ekiditeko.

Udalak hiru lokal atondu eta erabiltzeko aukera emango die sanpedrotarrei:

- Frontoiko plazako zurruna.
- Alkateordetza azpiko lokal bat.
- Komun publikoa zen lokala (ekarpen gune ere izango da).

Alde zaharrean, zurrunetako batzuetan jarriko dira esekitokiak, beti ere, kasko historikoaren fisionomia kontutan hartuta. Gainontzeko zonaldetan esekitokiak jarriko dira.

Egoera ezohikoetarako ekarpen gune izango den lokal bat zabalduko da (komunak zirenak) herritarrek izan ditzaketan ordutegi arazoei irtenbidea emateko.

Hondakin organikoa astean hirutan jasoko da.

Ontzi arinak astean bitan jasoko dira.

Papera eta kartoi astean behin jasoko da.

Errefusa astean behin jasoko da.

Beira ohiko edukiontzietan jasoko da orain arte bezala.

Pixoihalak, konpresak eta hondakin sanitarioak (gasak eta abar) egunero jasoko dira, larunbatetan ezik.

### NOLA IZANGO DA EZARPENA?

Ekainaren 16an (euskaraz) eta 17an (gazteleraz) batzar informatiboak egingo ditugu. Batzar horietan zure zalantza guztiak argitzen saiatuko gara.

Bilerak Udal Aretoan izango dira, 19:00etan.

Batzar hauetara San Pedroko bizilagunak, Gran Sol kaleko 5 eta 6 zenbakietako bizilagunak eta Ricardo Arrillaga kaleko 1 zenbakiko bizilagunak daude gonbidatuta.

Ondoren Udalak fitxa bat banatuko dio etxebizitza bloke bakoitzari bilketa leku bat proposatzu.

Komunitate bakoitzak epe bat izango du udalaren proposamena onartu edota kokapen berri bat planteatzeko.

Barruti osoan prozesu hau gauzatzen denean udal zerbitzuetako langileek egin beharreko moldaketak egin eta sistema berria martxan hasiko da.

### EZAGUTZEN AL DUZU ANTIXOKO ETA DONIBANEKO HONDAKINEN BILKETA SISTEMA BERRIA?

Ba al dakizu Donibanen eta Antxon biltzen diren hondakinak %85 inguru birziklagarriak direla eta aldir San Pedron eta Trintxerpen biltzen denaren %32 inguru dela birziklagarri?

Ba al dakizu Donibanen eta Antxon hainbat udal lokal daudela hondakinak biltzeko?

Ba al dakizu bilketak zure ordutegiarekin bat egiten ez badu edota ez ohiko behar bat baldin baduzu giltza eska dezakezula eta zure hondakinak lokal batean utzi ditzakezula?

Ba al dakizu Antxon eta Donibanen bost frakzio desberdin jasotzen direla, beira (ohiko edukiontzietan), errefusa, papera eta kartoia, ontzi arinak eta organikoa?

Ba al dakizu olioak, arropa eta pilak jasotzeko edukiontzia bere horretan jarraitzen dutela eta gailu txikiak jasotzeko kamioiak ere bere ohiko egunetan etortzen dela?

Ba al dakizu sistema berriarekin hasi aurretik Pasaia biltzen zituen hondakinak %32 zela birziklagarri? Eta egun Donibanen eta Antxon egindako aldaketari esker herri osoa kontutan hartuta %55eko birziklatze tasara iritsi garela?

REUNIONES INFORMATIVAS:  
16 (en euskera) y 17 de junio (en castellano)  
a las 19:00 en el Udal Aretoa

EN SAN PEDRO  
TAMBIÉN  
LLEGAREMOS AL

85%

